


# UME-ZURTZA.



(ON RAMON ARTOLA JAUNARI)

Nora joango naiz, nora, eta nondik abiyatu bidea, non arkituko det norbait ni maiteko nauenik, nere gurasoak maite izan ninduten bezela!... A!... nere aita! nere ama gajoa!... Zeok bazenakizuteke nola arkitzen dan zeon aur maite au; bakarrik, iñor gabe, otzak eta goseak, samindurik eta estalpe baten bearrean: bazenakizuteke nola nagon dar-dar iñongo alaitasunaren esperantzik gabe.....!

Zenbat aur nere parekoak, arkituko ote dira beren gurasoen ondoan, beren inguruan banaturik maitetasunaren doaia..., A! ama maitea... nonda nere ama, bere magal naigarri artan, bere bularraren berotasunean lo arrazitzen ninduen ama maitea!

.....Len esan detan bezela zenbat aur ote daude su ondoan, bero-bero, nai aña ogirekiñ eta guztiz apaindurik beren jantzi onarekiñ.... Zer gauza ederra eta aundia izan bear duben gurasoa izatea! zer gauza naigarria! Gurasoak negar egiten badu, semeak alaitu nayan, eta semeak negar badu gurasoak alai nayeana.... Eta ni orrenbeste denboren buruan negarrez, penaz gañera, nere izate au onen gazterik ikusirik gurasorikan gabe, ezta ordezeko batere nere malkoak chukatuko dutenikan!... Au otza!... au gosea! Len jaten ematen ziraten lekutikan bota egin naute, nai ez detala miñ eman diyotalako echeko aur bati. Orain nora joan, nola bizi, nola ere egon zutik... Nola ari duben elurra!..... Oi, eta chori orrek zér darama mokuan, arto aleenbat?... au otza, au ikara!... Nora joango naiz; au diyot beti, bañan nere barrenak ez nau eranzuten; nora, ezin baldin banaiz ibilli, nere oñ utsak ez daude bide luzia igarotzeko, eta gañera barrena aĩn daukat eriya. Ezin det geyago, otzak eta goseak menderatzen naute!... Nere aitak, orain gogoratzen naiz, erakutsi ziran otoitz bat, aĩn polita, egu-nero berekiñ esaten nubena. A! ia esan ondoren zerbait alaitzen naitzen, edo Zeruko Amak bide on bat zabaltzen diran. Belauniko jarri nai, baña eziñ otzaren gogortasunarekiñ makurtu.... iñondik esperantzik gabe. Zer esan det! esperantzik gabe! iñoiz baño geiago nere barren uts ontan, Zerura begiratu nai det, illun egon arren, atsegin-tzeko.

.....Nere Ama Birjiña, begira nazu nola arkitzen naizen; mundu onek ez nau nai bere artean, ez detalako ezer bere aurrean azaltzeko; atoz bada, nere Ama biotzekoa, atoz nigana, era eraman nazu, nere gurasoen aldera, emengo bakartasunetik . . . . .

Oi, zér da argitasun au, zér da odoi urdiñ garbi ori, eta neregana datoz, zér ote da, bere artean zerbait dator, aingeruak iduritzen zaizkit, ala dira, eta gauz urdiñ baten jiran datoz; au poza! otza dijoakit; au aiaitasuna datorkit barren-barrendik banaturik gorputz guztian; zer da neri gertatzen zaitana? zér sentitzen det? ¿zér ematen dit poz au?..

—Nik.... Zerutik nator, zuregana; zure otoitza Jaungoikoak aditu du, zure ama eta zure aita guztiz atsegiñ diraizu zerala meriyo. Ni naiz Ama Birjiña, zeru eta lurreko erregiña; nai dezu nerekin Zerura iza? Ortara nator, zu eramatera aingeru aben erdian; atoz bada, atoz maitea nere magalean, Zeruan goza dezazun, lur ontako samiñ guztiak azturik. Agur lurrari . . . . .

## II.

Gaurko eguna zabaldu duben beziñ laister, nekazari batzuek arkitu dute, soro batean, arbol aundi baten azpian aur baten gorputza, elur-rak erdi estalirik.

Nunbait otzak edo beartasunak eraman zuben arbol aundi arrea parera, onen arrimoan, noski, berotasun piska bat senti nayeian.

Oñ utsik dago, erropa sar batean bildurik bere gorputz gordiña.

Iñork ez du ezagutzen norena dan. Bere larruban ez da igartzen eriotzak lajatzten duben moretasuna.

Elurretan dagon bezela, negu gorrian, arkitu izan bazan udaberrian gorputz ori, dagon bezela, iñork etzuren usteko illa zegolá, baizik lotan arbol aundi orren itzalean.

Begiak dakazki erdi ichiak, bere arpegia farrez, bere irri onek eragiñaz bi chulo chiki masailchoetan.

Illa dago, iñork ez daki nola eta zergatik.

¡Zenbat gauza gertatzen ote dira lurrean, geren artean, iñork jakiñ gabe bitartean zér igarotzen dan!

FRANZISKO LOPEZ ETA ALEN.

